



EBAZPENA, 2022KO MAIATZAREN 20KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENDU EGITEN BAITA HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIAREN 2022KO MAIATZAREN 18KO EBAZPENEAN ATZEMANDAKO AKATS BAT. EBAZPEN HORREN BIDEZ, BERRITZEGUNE NAGUSIKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EDO, HALA BADAGOKIO, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEAN BETETZEKO DEIALDIA EGIN ZEN, 2022/2023 IKASTURTERAKO.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez, 2022/2023 ikasturtean Berritzegune Nagusian hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia egiten da. Aipatutako ebazpenean akatsak antzeman direnez, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, *“Administrazio publikoan administrazio-prozedura erkidearen interesdunek edozein unetan egin ahal izango dituzte akatsak”*.

Kasu zehatz honetan, deialdian zuzendu nahi da, gaztelaniazko bertsioan, nazioartekotzeko laguntzaile lanpostuaren lurralde-kokapena, ez baita Bilbo, Lasarte-Oria baizik.

Beraz, eman zaizkidan ahalmenez baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren I. eranskinean, gaztelaniazko bertsioan, honako hau zuzentzea:

Honela dio:

COLABORADORA O COLABORADOR EN INTERNACIONALIZACIÓN

- 1 puesto de trabajo para la sede de Bilbao

Hau esan behar du:

COLABORADORA O COLABORADOR EN INTERNACIONALIZACIÓN

- 1 puesto de trabajo para la sede de Lasarte-Oria

Bigarrena.- Egun bat gehiago ematea eskabideak formalizatzeko. Hortaz, epea 2022ko maiatzaren 26an (osteguna), 23:59tan amaituko da.

Hirugarrena.- Indarrrik gabe uztea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2022ko maiatzaren 19ko Ebazpena, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenean atzemandako akats bat zuzentzen duena. Ebazpen horren bidez, Berritzegune Nagusiko hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizuneren erregimenean edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia egin zen, 2022/2023 ikasturterako.



ERREKURTSOAK

Bide administratiboa bukatzen ez duen ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 19an

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL